

Ur okertua

Nola eragiten dio karga elektrikoak urari?

Materialak

- Iturriko ura
- Orrazi bat



Zer egin

1. Ireki iturria pixka bat, oso zurrusta fina atera dadin.
2. Orraztu zure ilea 30 segundoz, edo 30 aldiz.
3. Jarri orrazia ur-zurrustatik gertu, baina orrazia ura ukitu gabe. Zer gertatu zaio ur-zurrustari?

Zer gertatzen da?

Orrazia iletik pasatzean, elektrizitate estatikoz kargatu duzu ilea. Eta orrazia karga negatiboz kargatu da. Karga negatiboak karga positiboa erakartzen duenez, orraziaren kargak ur-zurrustaren karga positiboa erakarri du, eta ur-zurrusta okertu egin da.

